

Mihirik luzeenak

Garmendiak eta Ugaldek eraman dute telebista saioko saria ▶ 6



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2006-12-03 ▶ IV. urtea ▶ 1.028. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Gaur esango diote agur Txotxongilo jaialdiari

TOLOSA ▶ Espainiako eta Mexikoko hiru talde ezberdinen lanek itxiko dute 24. edizioa

IRABAZLEA ▶ Haurrak aritu dira epaimahai lanetan; iluntzean emango dute erabakiaren berri ▶ 4

TOLOSA ▶

Bonberenean urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Alegiko Gaztetxearen aurka futbol partida jokatu zuten atzo ▶ 4

MIRENTXU MORAIZ ▶ ERBESTERATUA



J. SAIZAR

«Gerra gabe ezberdina izango litzateke bizimodua»

«Lapurreta handia jasan zutela» dio abertzaleak ▶ 7



Titiriteros de Binefar Aragoiko (Espainia) antzerki taldearen *El hombre cigüena* antzeziana, atzo Leidor aretoan. ESTI EZEIZA

TOLOSALDEA ▶

Bost eguneko gose greba egingo dute hilaren 6tik 10era bitarte «presoen egoera salatzeko»

«Iñaki de Juana eta kondenaren hiru laurdena beteta dituzten eskualdeko lau presoak» izango dituzte gogoan ▶ 5

TOLOSA ▶

Giro polita nagusi atzoko azokan

Eskaintza aberatsa izan zen ▶ 4

ZAS
soinu ikastaroa
Informatika musikala (Cubase)
Grabaketa eta masterizazio profesionala
P.A. eta monitorrak
Eta abar
943 65 35 35
www.soinlek.net

GUTUN@K ▶

Altzon,
ura

Altzoko Udala Ur Konsortzian sartzean uraren tasak igo direnez ondorengo adierazpenak.

Denok gogoan dugu herriko jaietan, hau da, Saninazioan beti ura moztuta gertatzen zela eta utzaila eta abuztuan beti ur murrizketak edukitzearen genituela.

Uaren arazoa konpondu nahian ur-bilatzaila (zahori) bat ekarri genuen eta Urbeotako depositu ondoan ur poltsa handi bat aurkitu zuten. Hori esker, Altzoko ur faltak amaitu ziren.

Beste arazo bat ere bazen, hau da, Urbeotatik depositu-ura ura bonbeatu behar zela eta bonbak duela hogeiretekoak zirela. Urtero bonba hauek konpontzen diru pila bat gastatzen zen udal aurrekontuetatik, honez gain iturginaren gastua eta aguzilak sartzen zituen orduak aparte... eta horretaz gain ura edo saneamendu sarea berritzen gastatu behar zena.

Azken bi urtetan udaren ez da inongo ur murrizketarik egon naiz eta inoiz baino piszina gehiago jarri etxe askotan, eta lorategiak inoiz baino gehiago ureztatu.

Bestalde, eskola berria martxan jartzeko derrigorrez saneamendu sarea egin behar zen. Honek Udalarik 150.000 euroko kostua suposatuz, hau da aurrekontuetan inbertsioak deitzen diren diru guztia.

Altzotarrak ur eta saneamendu zerbitzu egokia merezi dugunez, eta diru beharra genuenez Ur Konsortziora jo genuen.

Ur kontsorzioak 2006 urtean 72.000 euro jarri ditu Altzoko saneamendurako

eta datozen 10 urteetan ur sarean eta saneamenduan 466.000 euro inbertitzea konpromisoa hartu du.

Beraz Altzok Udalak bere diru sarrera orokorretan datozen 10 urteetan diru kopuru hori gizarte beharretan gastatu dezake, adibidez gazteei lokal bat jartzen, edo adin nagusikoentzat *Centro de dia* delakoa edo...

Lurdes Murua andereak bere idatzian adierazitako adibide bat hartuz: 40,37 euro hiru hilabetetik behin ordaintzen duen familiak, egunean 0,44 euro gastatzen du etxean iturria ireki eta ura edukitzeagatik, edateko, garbitzeko, garbigailurako... Hau ogi barra erdi baten balioa baino gutxiago da. Baina datu bera aztertzen badugu diru horrek zenbat litro suposatzen duen egunean/pertsonako eta hori lau pertsonako familia baten adibidearekin jarraituz, 195 litro dira. Kontutan izanik Gipuzkoan batezbesteko kontsumoa pertsona eta eguneko 130 litrotakoa dela, familia horretako pertsona bakoitzak eguneko normala baino 65 litro gehiago kontsumitzen ditu.

Ahoa betetzen zaigu ekologiaz, ura zaintzeaz eta ura ondare eskasa del hitz egiten... baina egia da ez dugula zaintzen, eta merkea denez berdin zaigula despilarratzea.

Bestalde kontutan izan Gipuzkoa osoa Ur Kontsorzioan sartuko dela eta Gipuzkoa oso herrietan prezio berberak ordainduko ditugula.

Laburturik, Altzon uraren prezioa igo da, gehien bat gehiago kotsumitzen duenari, baina horrela datorren hamar urtetan Ur Kontsorzioak Altzoko ur sarean bai eta saneamenduan ere 466.000 euroko inbertsioa egiteko konpromisoa lortu du.

PILAR ZUBIARRAIN LASA ▶
ALTZOKO ALKATEA

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

Bedaio, auzo?



Azken paradak Balerdi gainera narama. Leku lasaia benetan, lasaiegia agian. Bertatik, inguruak aldaketarik gabe dotore eusten dakiela erakutsi diit. Zein ederra den auskalo noizko baserria bere itxura horretan!... Hustu bada ere bai?

Aste guztiko kezak uxatzeko leku egokia da Bedaio, ez zaituzte kutsadurak eta lantegien hotsak asaldatu; oilarren baten kukurrukuek edota artaldearen zintzarri doinuak, agian. Errepidea lasai zeharka dezakezu semaforoan edo oinezkoen pasabidean bila ibili gabe. Baina lasaitasun horrek badu ondorioz bertakoen artean. Eskualdeko herri kozkorretatik urrun egotea nahikoa ez eta, gainera auzo titulua eraman behar beti. Auzo? Noren menpeko auzo?

Inguruko herri guztiek eskaini dute bertan

bizitzeko aukera, onerako edo txarrerako, baina aldaketa antzeman dute edozeinen begietara.

Auzo, etorkizuna lauso. Herri txikiena ere bere zerbitzuak eskaintzen saiatzen da bere biztanleei, bere txokoak antolatzen, bere haurrak gozaten. Bailaratik ibilalditxo bat egitea nahikoa da...

Mendekotasunaren morroi, Udalarik gabeko herri, baina herri. Eta herri baten trataera merezi du, ez auzo batena. Bedaiotarrak bertan behar dute zein dantzari trebeak diren erakusteko lekukotasuna, bizitzeko txokoa, herri izateko onura, bere hizkuntza aparta seme-alabei eskaintzeko aukera. Euskararen Eguna ospatzeko, Bedaioko biztanle batekin solasaldi batez gozatzeko bezalakorik...

Gutxi izateak kentzen digu arrazoa askotan, baina handiaren aurrean soilik. Ilunabarreko hausnarketa isilean itxaropena sendotu baizik ez baita egiten. Beti pentsatu izan ditudan hitzak idaztera ausartu naiz gaurkoan, nire azken saioan, gutxi batzuen babesean, handiaren peskizian. Eta ez hartu «zirria» bezala, bedaiotarrak makilak baitira. Ondo izan.

ASTEKO IRUDIA ▶



RAUL BOGAÑO /AP

Euskadi Literatura Sarien itzulpen saria
Xabier Olarra tolosarrarentzat

Erredakzioa ▶ Beste lau dira, aste hau geroztik, Euskadi Literatura Sarien jabe. Horien artean Xabier Olarra tolosarra, Iban Zaldúa, Patxi Zubizarreta eta Javier de Dios idazleekin batera. Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik, Mari Puri Herreroaren Idazle Zuhaitza oroigarria jaso zuten pasa den asteartean eginiko ekitaldian. Lau idazleen sormena eta lana saritzeko ekitaldia, urtero legez, Gasteizko Lehendakariatzako egitaran izan zen. Han jaso zuten laurek epaimahaiaren, lagunen eta gonbidatuen txalo zaparra-

da eta merezitako saria. Jende ospetsua gogortzea da saridun gehienek betetzen duten zeregin. Xabier Olarra ere gauza bera egin zuen atzo. Estilo-ariketak liburuarekin itzulpen saileko sariaren irabazleak Raymond Pouldidor beti bigarren postuan geratzen zen txirindulariarekin alderatu zuen bere burua. Hura legez, Olarra ere saria eskuratzetik oso gertu izan baita behin baino gehiagotan Argazkian, Xabier Olarra saria jasotzen, Juan Jose Ibarretxe eta Kultura kontseilari Miren Azkarate bertan zirela.

iragarki laburrak ▶

LANA

Banatzailea eta laguntzailea.

Gabonetan dirua irabazi nahi duzu? Bi lanpostu eskaintzen dira: Banatzailea, asteburuetan. Laguntzailea, astean zehar. 943 65 12 26 (09:30etik 13:30era).

SALGAI

Furgoneta. Wolsvagen Caravell.

NA-AD, zortzirentzako tokia. 2.400 diesela. 600 26 69 28.

Autoa. Bmw M3a. Urdina, 286 zaldi, 1995 urtekoa. 153.000km liburuarekin. 18ko llantak eta teku. Egoera oso onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43ra.

iragarki laburrak ▶

LANA

Harreragileak behar dira

Erakunde Publikoetan. 943 44 48 66.

Gidariak behar dira

lanpostu finkoak betetzeko. 943 44 48 66.

Administrari laguntzaileak

behar dira Anoetan, Errenterian, Irunen eta Hernanin. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

ESANAK ▶



«Azken 20 urte hauetan itzultzen ibili ondoren, makina bat ordu honetan eta hartan sartu ondoren, noizean behin goxoki bat ondo datorrela esango nuke»

XABIER OLARRA ▶ TOLOSA

Itzulpen onenaren Euskadi saria jaso berri du tolosarrak *Estilo-Ariketak* liburuari esker.

DATUA ▶

1949

urtekoa da, hain zuzen ere, Lehenengo Euskararen Eguna. 1995an, Euskal Herritik kanpora bizi ziren euskaldunek egindako Lehen Mundu Biltzarrean eskatutakoa bere eginez, Eusko Jaurilaritzak eta Euskaltzaindiak elkar hartu zuten eta, ondorioz, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu. Geroztik, urtero-urtero, ospatu izan dute euskal erakundeek Euskararen Nazioarteko Eguna.

IRITZIA ▶ TERESA MARTINEZ (DROGOMENPEKOTASUN PREBENTZIOARAKO TEKNIKARIA LEITZAN)

Droga kontsumoei buruzko hitzaldia

Drogomenpekitasun Prebentzioko Programa 1998 tik aurrera zonaldean martxan izan da. Hasieratik programaren muina edo erdigunea gazteak eta gazteekin lan egiten duten elkarteak (Gaztetxea bereziki zonalde honetan) izan dira.

Leitzako Gaztetxea orain dela urte bat ireki zen eta, nahiz eta denbora gutxi daraman martxan, gauza ugari egiteko gogoaz aldatu dute. Ekintza horien artean gazteen droga kontsumoa lantzen ari dira.


Uda hontan ere, Goizuetako Gaztekoek eskaturik, Askagintza taldearekin batera, gai honen inguruan lanketa egiten aritu ginen. Ondorioa bai Goizuetan eta bai Leitzan ere berdina dela esango nuke: gazteek beraiek eta Gaztetxeetatik alternatibak bilatzea beharrezkoa da.

Leitzako Gaztetxean 3 hitzaldi burutzen ari dira. Azaroaren 24an eta Abenduaren 1ean: Txus Congil eta Aiora Askagintza Taldeko kideen eskutik izan dira eta hilaren 15ean, Miguel Angel Piniillos, Virgen del Camino Hospitaleko larrialdietako medikuaren eskutik izango da.

Hitzaldi hauek 15-16 urtetik gorako gazte guztiei zuzendurik daude, bai asko kontsumitzen dutenentzat baina baita gutxiago edota ezer ere ez kontsumitzen ez dutenentzat ere. Bete beharreko baldintza bakarra besteen iritzizikiko errespetua izatea da.

Helburuak honako hauek dira: Gazteen drogen kontsumoen inguruan eztabaidatzea eta pentsaraztea. Gazteek kezak, mitoak eta aurreiritziak azaltzea. Hauek informazio zehatz eta fidel batekin aldatzea. Drogen kontsumoarekin dauden arriskuak murrizteko tresnak eskaintzea. Gaztetxeetatik gehiegizko kontsumoari alternatibak bilatzea.

Bi hitzaldietarako, 24koa eta abenduak 1koa, planteatzen ziren gaiak honakoak ziren: gaur egungo gazteek dauzkaten kontsumoak, perfila, errealitatearen analisi, estatuaren papera eta Gaztekoek eskaini ditzaketen alternatibak. Gero, bertan, gehien bat sustantziatan zentratu



zen gaia, partaideen galderen arabera, segurazki beharrezkoa zelako horri buruz hitz egitea hasiera batean. Gaia kokatzeko Txus Congilek, kontestuari buruzko azalpena egin zigun: «Drogak bazeuden, daude eta izango dira, zorionez!», esan zuen.

Zer ondorio dituzte drogek?

Sortu ditzaketen ondorioak eta funtzioak hainbat faktoreengandik baldintzaturik daude: Batetik, kontsumoa egiten den testuinguruaren ezaugarri soziokulturalak: non, noiz, nola, norekin, zertarako?... Bestetik, substantziek dituzten farmakologia ezaugarri konkretuak: mota, kantidadea, dosia, ... Halaber, sustantzia horren kontsumitzaileek dituzten ezaugarri indibidualak: nortasuna, usteak...

Geroxeago, eta beti galderen arabera, gazteek gehienbat kontsumitzen dituzten substantziatan zentratu zen gaia. Alkoholarekin eraginak, non eztabaida izan zen depresorea edo estimulantea den.

Batzuk harriturik geratu ziren depresorea dela jakiterakoan. Asteburuko kontsumoan asko edaten da, gure kultura festarekin oso lotuta dagoelako. Gazte-txoagoak, 14-16 urte bitarteko gazte batzuk, gehiegizko kontsumoa dute, «atxurra biltzera»doaz.

Tabakoaren eraginak aztertzerakoan, berriz, nahiz eta lasaitzeko asmoarekin erabili, estimulantea dela da, garunaren aktibitatea bizkortzen du. «Orduan zer bultzatzen gaitu kontsumitzera?» Urduri gaudenean gorputzak eskatzen digulako. Nolabait ohitura bat bilakatu da horrelako egoeretan erretzea.

«Kokainak zer eragin du garun eta zein drogomenpekotaun maila sortzen du?» Tabakoa bezala bizkorgarria, estimulantea da. Epe motzera eta luzera aurki daitezkeen efektuak kontsumoa arazotsua denean honakoak dira: suminkortasuna, antsietatea, agresibitatea, konzentratzeko zailtasunak, memoriaren narridura, lo egiteko arazoak, bihotz eta garun nahasketak (depresioak, eskizofreniak, paranoiak...), kokaina psikosia: paranoiak, beldur krisiak, aluzinazioak... Batek bere lantegiko adibide bat jarri zuten: bere lantegian ia denek kokaina kontsumitzen zutela astean zehar lanean gehiago «renditzeko». Bukatzeko, azaldu zuten Gaztetxea alternatiba egoki eta indartsua dela gazteen gehiegizko kontsumoentzat. Hurrengo saioan estrategiak pentsatu beharko dituzte.

HELBURUAK

«Leitzan antolatu ditugun hitzaldietan gazteen artean eztabaida piztu nahi dugu, kontsumoaren inguruan»

hitza *lagunen txokoa*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin!
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KULTURA ▶

Datorren urtera arte, Titirijai!

Gaur iluntzean emango dute jakitera hurrek zein den jaialdiko saio irabazlea

ESTI EZEIZA

Agur esan beharrean gara 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiari. Hala ere, gaur gozatu ahal izango da festa honetako azken emanaldietaz. Bestalde egun guzti hauetan, hainbat haur, saioz saio ibili dira epaile lana egiten, eta gaur 20:00ak inguruan Leidor antzokian emango dute erabakiaren berri. Bederatzi egun hauetan ikusi ahal izan diren haurrentzako saioak ikuskatu dituzte gaztetxoek eta *Piratas* antzez-lana hasi baino lehen jakin ahal izango da zein den irabazlea.

Eguneko emanaldiak

Hasteko, gaur goizean Gaztela eta Leongo (Espainia) Alanimo taldearen emanaldia ikusi ahal izango da. 12:00etan eta 17:00etan, *Baku y los adultos* ikuskizuna eskainiko dute Kultur Etxean. Argumentuari dagokionean, Baku gaur egungo 12 urteko mutil bat da, arrunta, eta bere adineko beste edozeinek bezala galderak egiten diz-

kio bere buruari, eta baita ingurukoei ere. Ikuskizun hau Jean-Gabriel egile frantziarraren pieza bat da.

Bestalde, Leidor antzokian La Tartara antzerki talde ma-drildarraren *Piratas* saioa izango da ikusgai 17:00etan eta 20:00etan. Abentura eta desbenturen benetako istorioa da, mutiko baten eta itsasoeta-

ko pirata zakar baten arteko adiskidetasun harremana. Kontakizuneko protagonista pirata zakarraren samurtasun eta adiskidetasun sentimenduak esnatzeko gai den mutikoa da.

Eguneko hirugarren antzez-lana Ferialekuan ikusi ahal izango da 18:30ean. Mexikotik etorritako Emmanuel Marquez

antzerki taldeak *El caso mas dificil* saioa taularatuko du. Ordubeteko ikuskizun honetan kontatzen dena, detektibea izatera jolasten duen mutiko baten abentura hunkigarria eta bere panpinaren eta txotxongiloen laguntzarekin bere bizitza laburreko kasurik zailenari aurre egingo dio: gurasoen arteko arazoa konpontzeari.

Ikusi ez ezik, egiteko aukera ere bai

E. Ezeiza ▶ Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak antolatzen duen ekimenen baitan, txotxongilo tailerra egin zuten atzo. Haur eta guraso ugari hurbildu ziren Lopez Mendizabal plazako karpara txotxongiloak egiten ikasteko. Eguraldi txarrarengandik babestuta, etxeko txikienean, elkarri lagunduz, hainbeste gustatzen zaizkien panpinak sortu eta moldatzeko aukera izan zuten. E.E.



GIZARTEA ▶

Gol eta gol artean, jai giroa nagusi

E. Ezeiza ▶ Zazpigarren urteurrena aitzakiatzat hartuta, herrien arteko futbol partida jokatzen zuten atzo Bonberenean. «Etxekoak» Alegiko Gaztetxe-koen aurka aritu ziren, eta markagailuan ikus daitekeen bezala, 14-6, erraz irabazi zuten «kanpokoek». Datorren asteetan ere ekitaldi ugari gauzatuko dituzte. HITZA



AZOKA ▶

Giro polita nabarmendu zen atzoko azokan

Eskaintza aberatsa izan zen eta jendeak erosketak egiteko aprobetxatu zuen

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna animosoa suertatu zen oso. Goizeko lehenengo orduetatik gerturatu zen jendea azokara, eta salmentak goizaren bukaeraldera ez ziren batera makalak izan.

Produktuen zerrenda ere izugarri zabala izan zen. Barazki asko: mota askotako azak, porruak, azenarioak, azelgak, txikoria, ziazerba, le-txuk, eskarolak, edo eta gardua besteen artean. Perretxiko zerrenda zabala ere: Onddoak, ziza horiak, gibeldurinak, gamuza, mendiko angula eta nikaloak. Fruta asko: Errezil sagarra, urra, intxaurra, mizpiradia, kiwia edo eta gaztaina.

Berdura plazan pazko loreen agerpenaren zain daude. Datorren asterako ia ziur izango dugula aukeran, eta hau bai iraungoko duela gabonetaraino behintzat.

ATZOKO AZOKA ▶

Prezioa	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Xarbota	4,00	6,00
Txinar krabelina	2,50	-
Bertako produktak		
Onddoak	10,00	26,00
Kiwia	-	3,00
Intxaurra	3,00	4,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Mermelada	3,00	3,60

Tolosa

GOURMET

Txuleta festa

943 69 74 13

tour@tolosaldea.net

Atariak: abenduak 6, 7, 8 eta 9 / Sarrateko ordutegia: 20:00 - 22:00

Darrikariak: abenduak 9 eta 10 / Sarrateko ordutegia: 13:30 - 15:00

Lekua: Zerkanua

POLITIKA ▶

ERREDAKZIOA

Iñaki de Juana preso politikoa-
ren gose grebak aurrera jarraitzen du. 27 egun bete ditu gaur Madrilgo (Espainia) ospitale batean.

Honen aurrean eta presoaren egoerarekiko elkartasuna adierazi nahian, Tolosaldeko hainbat bizilagunek hilaren 6tik 10era bitarte baraualdia egingo dutela eman zuten eza-gutzera lehengo ostegunean. Askatasunak Tolosako udal-
tearen azpian egindako prentsaurrekoan, hain zuzen ere.

«Euskal presoek jasaten dituzten eskubideen urraketa salatzen ekintza» izango da asteazkenean hasiko dutena, prentsaurrekoa eman zuten ki-deen arabera. Honen harira, Iñaki de Juana preso donostiarren «egoera larria» gogora ekarri zuten, hau ere salatuz. «Egoera honen ardura PSOEK du», gehitu zuten, bide batez. Preso eta senideen eskubideak «darriki zapalduak» eta «beraien legeak ere gainetik saltatuak: guztiaren aurrean zer egiten du PNVk? Hitz gehiegi baina ekintzarik ez. Eta denbora aurrera doa».

«Xantaia politikoaren aurka, dispertsioaren aurka, preso eta iheslarien eskubide urraketek erantzuteko, Audientzia Nazionalaren jarduer faxisten aurka, atxiloketa eta inkomunikazioaren aurka» eta «kalean behar duten presoak» aska dituzaten eta «Euskal Herrira hurbildu», deialdi bat luzatu zuten.

Gogora ekarri zuten ere, alde batetik, gaixotasun kronikoak eta sendaezinak diren eritasunak dauzkaten sei presoak, eta, bestetik, presoek daukaten kondenaren hiru laurdenak bete dituztenak: «kondenaren hiru laurdena Tolosaldeko Peio Odriozola (Tolosa), Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko eta Jon Mindegiaga (hiruak Ibarraoak) dira».

Tolosaldeko grebalariek

Lehen Tolosako udaltxea zen lokal batean bilduko dira gose grebalariek. Kasu honetan mo-

Bost eguneko gose greba «presoaren egoera salatzen»

Hilaren 6an hasiko dute, Iñaki de Juanarekin elkartasuna eta eskualdeko lau presok kondenaren hiru laurdena beteta dituztenak gogoratu eta salatzen



Tolosako udaltxe azpian egindako prentsaurrekoan, ostegun gauean. Bertan, hilaren 6an hasiko duten gose grebaren berri eman zuten. HITZA

mentuz, eskualdeko zazpi lagun inguruk egingo dute gose greba. Egun horietan han egongo dira sartuta, eta noizean behin kalera aterako dira informazioa edo paper informatiboak banatzeko.

Igandean, gose grebaren azken egunean, hain zuzen, manifestazioa egingo dute eta prentsaurrekoan esan bezala, «parte hartzera gonbidatzen ditugu denak, bai gose grebara, bai manifestaziora ere».

BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu, Tolosaldean.

Lan-baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan eta bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Astelehena, azaroak 27, deitu telefono honetara
943 30 43 41

ELOLA ALTZARIAK

bede

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
TOLOSA

10 egiteko eta atsedean hartzeko onena

Argi eta egoki idazteko, oinarritzko tresna

ESTILO LIBURUA

ZURE LIBURU DEIDAN
25 €

Harpidedunentzako eskaintza berezia: 20 €

Eskariak egiteko
Tel.: 943 30 43 45
harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.no

JON GARMENDIA ETA URTZI UGALDE ▶ ETB-KO 'MIHILUZE' SAIOKO PARTAIDEAK



ENERITZ MAIZ

«Lehenengo saioa pasatzea zen gure nahia, ez genuen hau espero»

'Mihiluze' saioan 7. 208 euro poltsikoratu dituzte billabonatarrek; jarraitzeko aukera bazuten ere, lanagatik, saioa utzi beharra izan zuten

ENERITZ MAIZ

Jon Garmendia eta Urtzi Ugaldek osatutako bikote jator eta sinpatiko hau, Euskal Herriko mihiluzerik mihiluzena bilakatu da ETB1eko saioan parte hartu ostean. Zortzi saioetan parte hartu ondoren, 7.208 euro irabazi zituzten billabonatarrek. Oraindik ezpainetan dute irribarra.

Nolatan eman zenuten izena Mihiluze-n?

Urtzi Ugalde. Ni aurreko urteko saiora joatekoa nintzen baina ezin izan nuen eta hor neukan esperientzia bizitzeko gogo eta Joni tentatu nion aurtengorako. Grabaketak hasi arte, lagun bat eta gu bion, arteko gauza bakarrik izan zen.

Jon Garmendia. Hernanira joan ginen parrandara eta lehenengo tragoetan ezezkoa esaten nion, baina aurrera segi ahala baiezkoa eman nion eta hurrengo egunean ezin atzera egin.

Nolako esperientzia izan da?
J.G. Oso oso ondo pasa dut. Ez nuen ezagutzen telebistaren

PARTE-HARTZEA

«Parranda batean berotu ninduen Urtzik eta baietza eman ostean eman genuen izena *Mihiluze* saioan»

alde hori eta gustora. Lagunak izateaz gain harreman ona dugu eta dena ondo atera da.

U.U. Oso ona. Ondo pasatzeraz joan ginen eta diru pixka bat irabaziz gero hobe, baina hau ez genuen espero. Lehiakideon artean ere giro ona egon da.

Zel in izan zen gustukuen zenuen atala?

J.G. *Erogilifiko*-ena. Zortzi saioetatik zazpietan egin genituen. Azkeneko bost saioetan ez ginen batere ondo ibili; beti guk aukeratzeko genuen zer egin nahi genuen eta beti asmatzen genituen bi edo hiru; *erogilifiko*ei esker lortzen genuen bigarren fasera pasatzea.

Zer moduz moldatu zarete aurkezleekin?

U.U. Oso giro ona dagoela

SAIOA

«ETBn ondo zaindu gaituzte eta jende jatorra ezagutu dugu; aurreko denboraldikoa baino dibertigarriagoa da»

ikusten da beraien artean. Kike xehebrea eta jatorra da eta Ilaski, zentzu guztietan, izugarriko neska. Ondo hartu gintuzten.

J.G. ETB-en oso ondo zaindu gaituzte, jende jatorra ezagutu dugu eta saioa bera ere lehenengo urtekoa baino dibertigarriagoa egiten asmatu dute.

Estrategia edo taktikarik erabili zenuten?

U.U. Ez, ezta pentsatu ere. Hala suertatu da. Inspirazioa izan da, eta zorrea ere izan dugu; ni zentratu ez nengoenean Jon egoten zen eta bestela alderantziz.

J.G. Kikek ere programan bertan nahita gaizki ibiltzen ginela esaten zuen *erogilifiko*-ak aukeratu ahal izateko, baina gure

SARIA

«Aurreztea ondo dago baina ezerezetik iritsi zaigun dirua da, eta kapritxo batzuetan xahutuko dugu»

nahia *Tribuen berbetan* programan bat behintzat asmatzea zen eta 100 puntuak ziurtatzea. Estrategiarik batere ez.

Zenbateko saria irabazi duzue?

U.U. Denera, 7. 208 euro izan dira baina kentzen digutenarekin bakoitzarentzat gutxi gorabehera 3.100 euro inguru.

Zenbat trago edo afari dituzue ordaintzeko?

U.U. Nik ikaragarri pila, ez nuen uste hainbeste egingo genuenik eta brometan aritu nintzen lankideekin. Botea eramanen bagenuen, diru asko zegoela eta sagardotegia ordainduko niela, eta orain emandako hitza ezin jan. Hobe nuen isil-isilik egon izan banintz!

J.G. Nik gutxiago, Urtzik ahoa

zabaldu zuen eta. Bestetik, gure bi lagun billabonatar ere atera dira orain, eta horiekin hitz eginda geunden joaterako, beraiek edo guk diru pixka bat irabaziz gero, afaria egingo genuela. Eta gero, koadrillakoak daude, ez dakigu oso ondo nondik atera duten baina afaria zor omen diegu; batek esan, eta nola ez, beste guztiak apuntatu. Hori bai, orain lagunak harri azpietatik ere agertzen zaizkigu trago edo afari eske!

Diru horrekin zerbaitek egiteko asmorik bai?

J.G. Aurreztea ondo dago baina zerutik erori den dirua da eta kapritxo on batean gastatuko dut. Zati bat Aste Santuetan Italiara joateko, zulo batzuk tapatzeko bestea, eskiatzeko...

U.U. Soldata badugu eta hau aparteko zerbaite da. Hasteko ordenagailu portatila erosiko dut, zulo batzuk tapatu eta bidaiatxoren bat ere egingo dut. Hala ere, parrandan diru asko joango da.

Zer moduz ikusi dituzue zuen buruak telebistan?

J.G. Ni lotsatuta egon naiz neure keinuak eta mugimenduak ikustean. Etxekoek esaten zidaten horrelako keinuak egiten ditudala, eta nik ez nuen uste. Ahotsarena ere arraroa egiten da.

U.U. Ez dakit lotsa den, baina oso arraro ikusten nuen neure burua eta gehien harritu naue-na ahotsarena izan da, ahots hori da nirea? eta keinu batzuk ikustean ere bai. Etxekoek eta lagunek esan didate naizen bezalako atera naizela.

Urtzi, nola ikusi duzu Jon saioan zehar?

Bera den bezala, baina hasieran oso oso urduri. Lehenengo saioan ni ere urduri antzean nengoen baina nolabait bideratzen nuen. Aldiz, Jon ikusten nuen geldi egon ezinik, urduri zegoela esanez. Gainerantzean, ondo.

Eta Jon, zuk Urtzi?

Lasai, oso ondo, trago bat hartzen balego bezala, lagun ikaragarria da telebistarako. Berak animatzen ninduen lasai egoteko esanez eta ondo pasatzeraz joan garelako gogoratuz.

Parrandazale ibizura eman duzue, eta hori?

U.U. Nik jada onartua daukat eta ezagutzen nautenek bada-kite nolako naizen, ez da gauza berria.

J.G. Lehendik geneukana baino puntu bat gehiago gehitu digutela, besterik ez.

Beste saioaren batean errepi-katzeko asmorik bai?

U.U. Ez, ez. Kuriositatea nuen probatzeko, probatu dut eta ondo atera da.

J.G. Urtzik horrela ezeztatzen badu, nik oraindik eta gutxiago.

MIRENTXU MORAIZ ▶ ERBESTERATUA IPAR EUSKAL HERRIAN

«Gerra izan ez balitz, erabat desberdina izango zen gure bizimodua»

«Lapurreta ikaragarria» jasan zutela eta «Jainkoari eskerrak» aurrera atera zirela dio emakume abertzaleak

JOXEMI SAIZAR

Mirentxu Moraiz Arruek (Tolosara, 1927) eta bere familia abertzaleak gerran dena galdu egin zuten, erbestea ezagutu eta berriaz ere bizitzen hasi behar izan zuten. «Hori da miseria», dio. Esaldi horretan laburtu dituen bizitza eta bizipenak azaldu dizkio HITZARI.

Zer gogoratzen duzu gerraren aurreko garaiaz?

Rondilla kalean bizi ginen amonarekin eta altzari denda genuen. Ama eta amona aritzen ziren bertan. Beherago, Gorritiko errebueltan ebanisteria tailerra genuen. Aita, SAM-en egiten zuen lan. Aita, Ramon, Bilbon jaioa, EAJko Tolosako junta municipalako presidentea izan zen eta ama, Angelatxo, Emakume Abertzaleen Batzako lehendakaria. Leporaino zeuden sartuta. Ni jaio nintzenetik izan naiz EAJkoa [orain EAKoa da], ez nuen aukerarik, ikusitakoak ikusita.

Eta hasieraz?

Behin ama korazonista batekin hizketan ari zela, gerra hasi zela entzun nien. Amak praktikanterik titulua atera zuen Valladoliden, tailerreko lana utzi gabe, eta gerra hasi zenean lurreamendi ospitala zen eta hara laguntzera joaten hasi zen egunero. Aita berriaz, lanetik atera eta Batzokira joaten zen gauzak prestatzera. Ia ez genituen gurasoak ikusten.

Nola izan zen irteera?

Crespo botikarioaren anaia kimikoak hobe zuela alde egitea esan zion amari. Berak ez zuela ezer egin erantzun zion eta ez zion kasorik egin. Izeba maistrak gurekin zen uda hartan, beldurtu egin zen eta amonarekin batera Donostiara joan zen. Berriz ere Crespo horrek alde egiteko esan zion amari, gauzak itsusi ari zirela jartzen. Tolosan sartu baino egun batzuk lehenago alde egin genuen Donostiara. Gauza batzuk hartu genituen maleta batzuetan. Amak goiko bizilagun jostunari utzi zizkion etxeko giltzak, egun batzuetarako gindozak eta pentsatuak. Anai-arrebak eta ama joan ginen. Aita hemen gelditu zen. Moraiztar eta



JOXEMI SAIZAR

Arruetar guztiok alde egin behar izan genuen. Arrue bat gelditu zen Arriben, medikua, eta oso gaizki pasatu zuen.

Gero zer gertatu zen?

Hiru aste edo pasatu senitartekoen etxean eta handik Bilbora joan ginen. Ez zegoen Tolosara bueltatzerik. Bilbon Ricardo Arrue osaba zegoen mediku bezala. El Sitio liburutegia zena ospital bihurtu zuten. Ama erizain bezala joan zen eta gero erizainen buru jarri zuten. Iraitetik ekaina bitarte 28 kilo galdu egin zituen. Ikusi ere ez genuen ikusten. Aita ere ez, hara joana izan arren. Jaurilaritzarako ari zen lanean.

Noiz atera zineten Bilbotik?

1937ko uztaian, Doroteo Ziaurritz sendagile abertzale tolosarrak amari esanda. Tolosan bere burua eskatzen zutela esan zion, ez aitarena. Horregatik alde egin genuen Frantziara Antonio Ciscar gerrauntzian, Juan Antonio Castro errepublikar tolosarra komandante zela. La Rochellera joan ginen. Txer-

toak eta jarri zizkiguten eta babestoki batean egon ginen. Oso ondo tratatu gintuzten. Aitaren berririk ez genuen, baina halako batean amak ere lortu zuen jakitea aita Frantziara zegoela, salbo. Handik Donibane Garazira joan ginen. Citadellen 500 neska-mutilentzat jarri zuten koloniara. Ama bertan hasi zen erizain bezala lanean.

Zein zen erreformatuen arteko giroa?

Ona. Eresoinka abesbatza sortu zuen Jaurilaritzak Saran. Duela gutxi urteurrena ospatzeko festa bat izan dugu. Aita aritu zen, ahots ona zuen. Beste tolosar batzuk baziren: Jesus Elosegi, Pilartxo Sansinenea, 'Poleo' Orbegozi, Anita Casterres errepublikazalea... Parisen, Ingalaterran, Belgikan... egon ziren abesten. 1939an desegin zuten Eresoinka.

Denbora asko egin al zenuten Donibane Garazian?

Ez, kolonia itxi behar izan zuten. Batzuk haurrak erreklamatzeko hasi ziren eta haur ba-

tzuk bidali zituzten. Dirurik ez zegoen. Insausti batek ematen zuen diru asko. Fortunato Unzeta apaiza oso famatua zegoen han, beldurra ematen zigun. Gero Pello Zubeldia apaiz lizar-tzarra ere bai, asko maite genuen. Gero zigortuta bidali zuten Almeriara. Donibane Garazian geunden taldea erdibitu egin zuten: euskaraz genekie-nak Armendarizera eta besteak, erdaldunak, Landetara. Gero gu ere Landetara joan ginen, beste toki batera, txiki gelditu zelako gure lekua.

Zer gertatu zen alemanak sartu zirenean?

Tarbeseko arsenallean lanean hasi zen aita. Han egotea denbora galtzea zela, zerbait egin behar zela pentsatu zuten gurasoek eta Donostiako Teresianetara bidali gintuzten interno. Hala egon ginen 1941etik 1944ra, ama Tolosara etorri arte. Aita bi urte beranduago etorri zen.

Nola hasi zinen lanean?

Ahizpak ikasketak bukatu eta Eugenia Arrue izeba maistrarengana joan zen Bilbora. Lanik ez zioten ematen izebari eta klase partikularrak ematen hasi zen eta harekin batera Arantxa ere bai. Ni batxilergoa ikasten ari nintzen eta gero magisteritza korrika eta presaka Donostian, gero beraiekin lanean hasteko 1945ean. Egun guztia etxerik etxe ibiltzen ginen klaseak ematen. Ama guk irabazitakoarekin bizi zen. Hainbeste gauza utzi eta ezer gabe gelditzea badakizu zeredu? Bilbon suerte izan nuen: ordezkapen bat egitera joan Eskola Frantsesera eta hartu egin ninduen zuzendariak. Eta gero Donostiako Lizeo Frantseseko zuzendaria izendatu zutenean etorri egin nintzen ni ere, 1957an. Bertan aritu naiz erretiratu arte. Tartean urte eta erdi egin nuen Uranga paperfabrikako bulegoan administrari lanetan. Medikua izan nahi nuen, baina dirurik ez eta praktikante eta komadronea ikasi nuen. Lanean ibili nintzen, baina ezin nuen eta utzi egin nuen.

Tolosara itzultzekoan zer aurkitu zenuten?

Etxe hutsa. Balkoitik behera dena bota zutela esan ziguten: altzariak, zilarrerria, maindireak, liburuak... Ebanisteria kendu egin ziguten eta altzari dena ere bai. Hango gauzak saldu edo oparitu egin zituzten gure langileetako batzuk. Jasotako gauzak Miserikordia zaharrean zeudela esan zioten amari, tartean etxean bertan egindako komedorea. Alkatearengana jo —Periko Irazusta, laguna zen lehendik, aitaren sendagilea— eta osatu zuten komedore hura. Beste batean emakume bat hil zen eta amarekin joan

GURASOAK

«Aita EAJko Tolosako junta municipalako presidentea izan zen eta ama, Emakume Abertzaleen Batzako»

FAMILIA

«Moraiztar eta Arruetar guztiok alde egin behar izan genuen; Arrue bat gelditu zen Arriben, eta oso gaizki pasatu zuen»

FRANKISMOA

«Oso gogorra izan zen: ezin hitz egin, kontuz zer egin, euskara kontuekin disimulatu behar...»

nintzen bere etxera. Pasilotik gindozalea, atea irekita zuen gela batetik pasatzean, amak besoa jo zidan, zerbait esan nahiean, baina nik ez nuen ezer ikusi. Gero ateratzerakoan esan zidan gela hartako altzariak gure etxeokoa zirela. Orduan bai, konturatu nintzen. Oso altzari bereziak ziren, Luis XV estilokoak, gure tailerrean eginak. Garai hartan inork ez zuen horrelakorik. Oso prezio merkean erosi zituzten eta amari kostatu zitzaizun berreskuratzea, baina ebanistek gureak zirela baieztatu zuten. Hala etxeratu zituen. Osaba apaizak liburu asko zituen eta haiek ere galdu genituen. Nondik eta nor bidalia jakin gabe, pakete bat iritsi zen etxera horietako liburu batzuekin. Lapurreta ikaragarria izan zen eta aurrera atera behar. Atera ginen Jainkoari eskerrak.

Zein da egiten duzun gerraren balantzea?

Dena aldatu zuen. Gerra izan ez balitz, erabat desberdina izango zen gure bizimodua.

Noiakoa izan zen frankismoa?

Oso gogorra: ezin hitz egin, kontuz ibili, euskara kontuekin disimulatu behar... baina aurrera atera gara, egin behar zen hori. Ikastolak bultzatzen hasi ginen Donostian, Tolosan alderdia berregiten... Hori izan da nire bizimodua. Dena galdu eta berriz ere bizitzen hasi behar, hori da miseria.

OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa eta Gerra Zibilar buruzko sail honetako artikulak gure webgunean ikus ditzakezu.

AGENDA ▶

24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Tolosa. Gaurko egitaraua: Leidor antzokian, Madrilgo (Espainia) La Tartana taldearen *Piratas*, 17:00etan eta 20:00etan. Kultur Etxean Alanimo taldea (Gaztela eta Leon, Espainia) izango da *Baku y los adultos* saioarekin, 12:00etan eta 17:00etan. Feria Lekuan 18:30ean Mexikoko Emmanuel Marquez taldearen *El caso mas dificil*.

DEIALDIAK

Alegia. Bihar udaletxean 19:00etan Bai Euskarari taldeak bilera berezi baterako deitu du. Kudeaketa, antolakuntzari buruzko informazioa emango dute. Alegialdeko dago zuzendua.
Belauntza. Frontoian. 11:00etan Alkizako Pilota Eskolako haurrak etorriko dira Belauntzara herrikoekin batera jaialditxo batean parte hartzeko. Antolatzailea: Belauntzako Kultur Etxea.
Ikaztegieta. Ikaztegieta kiroldegiko aparkalekuan 11:30ean autodeterminazioaren aldeko auto karabana. Alegia, Alzo, Amezketa, Abaltzisketa eta Orendaineraino iritsiko dira. Euskararen alde lan egiteko bilera berezia deitu dute.
Orendain. Udaletxeko areto nagusian 12:45ean Uemako Kultur Elejiraren barnean Gema Arrugaetak zuzendutako *Añamendi: Euskal Herriaren bizkarrezurra* diaporamak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112. Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

Bihar
Leiza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112. Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza* hegana (errepikapena).

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Larrazko itxura berria

ANOETA ▶ AHTk eragingo dituen kalteei buruzko panel informatiboa jarri zuten, eta hondakinek estaliko duten belazean lizarrak eta astigarrak landatu zituzten



Anoetarrak, Larratz belazean gainean AHTren inguruko panel informatiboa jartzen. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Larraz zabortegia. Orain arte ez da ezaguna izan Larraz zabortegia, baina gero eta gehiagotan entzundakoa den hitz-parea izango da. Ederki asko dakite AHTren aurka dauden hainbat lagunek. Hara joan ziren atzo horietako batzuk, Anoetatik Larraz zabortegiraino oinez, mendiko ibilbidea eginez: ordutxo batez ibili ondoren Anoeta eta Hernialdeko mugara iritsi eta eu-

riarekin batera zuhaitzak landatu zituzten: astigarrak eta lizarrak. Panel informatiboa ere jarri zuten bide bazterrean. Anoeta AHT Gelditu! Elkarlana, Anoetarrok Auzolanean eta Anoetako Gazte Asanblada; hiru taldeak arduratu ziren atzoko ekintza informatiboa egiteaz. Zuhaitzak landatu zituzten, panel informatiboa eta merienda emateaz arduratu ziren. Eurria eta eguraldi txarra zirela eta, trikitilarien saioa bertan behera geratu zen.

«AHTren proiektua aurrera eramaten badute, Larrazko belazeak hondakindegian bihurtuko dira»: handik ez oso urrutiko egingo duten «tuneletik aterako dituzten lurrak eta soberakinak bertara botako dituzte». Han zeudenean aipatu zuten, Anoetan, Larrazko belazez gain, beste hondakindegia bat gehiago egingo dutela, irailean egingo zuten akanpada inguruko, hain zuzen. Isasti bezala ezagutzen da. Hernialdeko

beste aldean ere beste bat egingo omen dute. Anoetatik Hernialdera doan bide bazter batean, Larrazten parean, panel informatibo bat jarri zuten, AHTk Anoetan eragingo dituen kalteak eta trenaren ibilbidea garbi adieraziz. Ondoren, gora eramandako askaria egin zuten, ondoko aterpetxo batean. Merezitako gazta, ogia eta sagardoa jan zituzten, bestean artean, panela jartzen aritu zirenek eta mendiko ibilbidea egin zutenek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ainara Zabala (Tolosa). Bihar 4 urte, muxu handi bat bere ahizpa saioa, aita eta amaren partetik.
URTE ASKOAN
Maria Ansa Peña. Gaur urte bat. Zorionak, potitoli.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza agurren tarte